

Zer ote da saioa eta zein saiolarari? Euskal literaturan —besteetan ez dut esango askoz hobeto dabilzanik— dena ilun eta nahasi daukagula ematen du. Izenetik hasita: saio, saiakera, enseiu-entseiu, entsegu. Nik neuk saiotan utziko nuke.

Zer da saioa? Hori argitu nahi izan diguten bi lantxo bakarrik ezagutzen dut euskaraz: Txillardegirena bat, JAKIN-en, M. Ugalderena bestea, EUSKERA-n. Biek definizio berdintsuak ematen dizkigute (hirugarren bat, erdaraz emana, P. Urkizuren *Lengua y Literatura Vasca*-n ikus). Baina saioaren definizio mugaketa bat zein zaila den, praktikak erakusten du.

### Euskal ligeraturari begira

Saiolaria ote da Gerriko? Apenas. Halare, Cristau Doctrina Guztiares Eplacacioaren Sayaquera deritzo harca liburuari. Eta Gerrikok berak "Ensayo" itzuli zuen.

Eta saioa ote da Gero? Ez du, behintzat, inork saiotzat jotzen, ez eta XVII mendean, Montaignez gero, saio hitzak eta saio moduak hartu zuen gorarekin erlazioan ikusten. Halare, Axularrek berak "enseiukarreen bezala" idatzi duela Gero, esaten digu. Eta bere asmoa zela, alegia, "ene enseiu aphur hunek kilika zinitzan eta gutizia, enseiu hobeago baten egitera". Ez da dudarik, Axularrek esaten duen "enseiu" horrek oraindik ez zuela gure saioaren adiera zehatz mugatua. Baina, orduan, frantsesez eta ingelesez era berdin zegoen hori. Montaignek, bere saioak, esperimendu eta proba bezala ulertzen zituen —Epreuves—, justu Axularrek bezalaxe, "enseiukarreen bezala" idazten bait zuen Montaignek ere. Moda ere bihurtu zen "enseiukarreen bezala" idaztea: XVII mendeko saiolarari eta moralistak ez dira arinki benturatzen jendartera, ez jakintsu itxurak harro-harro eginez ere, gortesiazko apaltasunez

*No es tarea fácil establecer criterios claros y operativos para determinar los límites del ensayo dentro de la literatura vasca. En efecto, según los criterios que se adopten para orientarse en esta materia, muchas obras y trabajos quedarán*

*dentro o fuera de dicho género. Es el problema que analiza Joxe Azurmendi en este artículo, haciendo referencias concretas a la historia de la literatura vasca, entendiéndose literatura en euskara.*

## saioa dela eta, euskal literaturan

edo zuhurtasunez baino, beren izkribuak, saioak ala tratatuak, Axularrek egin zuen bezalaxe, mila aitzakiz eta deskarguz hitzaurreztatuz.

Beraz, berek beren lanak agian horrelaxe ulertu bazituzten ere, guk ez ditugu saiotzat hartu ohi Axular eta Gerriko.

Lehenagokoak lehenago, oraingoekin ere ez gabilta oso seguru. L. Mitxelenak saiorki idatzi al du?

I. Sarasolaren historian, linguista dela eta kritiko dela, esaten da; literato eta saiolarari denik, ez. Eta Aresti? Begiarmenek (I,119), "Arestik ez du egin saiakerarik", erabaki du. Zelaietak (187 eta hur). Arestiren 70. urteetako saiogintza aipatzen du.

Jeneralean, gure literatur historirik J. Etchepare midikua aipatzen digute lehen saiolarari gisa (Villa-

sante, 302; Sarasola, 58; Onaindia, IV, 388), oker ez banago Lafitteren ondotik ari baitira denak. Gero beste zenbait saiolarari aipatu ohi da: Salvatore Mitxelena, Rikardo Arregi, etab.

Baina ez dirudi saioak euskal literaturaren historian ohorezko lekurik irabazi duenik orain arte.

Izan ere, saiolaria literato ote da? I. Sarasolak, liburu azkeneko eskematismoan, "prosa ez erlijiozkoan" sartu du Etchepare (124). Atal honetan, oraindik, 1. poesia, 2. teatro, 3. ipuin eta prosa ez erlijiozko, hiru sailetan berezten da literatur produktioa. "Prosa ez erlijiozkoa", kontzeptu nasaitxo da agian ezer klasifikatzeko? Gerorago, beste sail bat irekitzen da: "prosa ez literarioa". Hor sartzen dira, esate baterako, Txillardegiren *Huntaz eta Hartaz*, Rikardo zenaren saiogintza, neure saio lana ere. Beraz, saioa, prosa ez erlijiozko baino gehiago da; baina ez prosa ez literario baino gehiagorik? Literaturaren historian dago halare.

Egunkari honetan bertan, EGIN-en, J. M. Lasagabasterrek egungo euskal literaturari buruz idatzi du berriki. Eta literaturaz diharduela, poesia, teatroa eta nobela hartu ditu haintzakotzat. Saioa ez da inondik ageri.

### Saioa literatura al da?

Azkenean hori dago: saioa literatura den ala ez. Zer kontsideratu behar den, izkribuetan, literatura bezala (korapilo hori ez da gure literatur historiakoa bakarrik). Ida-

tzi, asko idazten da: EGIN hauxe ere idatzi egin da. Zer da, idatzi guztiares artean, literatura? Kurioski, badago diferentzia bat, zer kontsideratzen den literatura eta zer kontsideratzen den literari, artean ere. Beharbada hortik dago Sarasolaren saioa euskal literaturan bai, baina "prosa ez literario" bezala klasifikatzea. Literari izateak literatura izateak baino gehiago eskatzen duela ematen du.

Guzti hau dela eta, euskal literaturako klasifikapenetan erizpide eta modu oso diferenteak dabilta, ikusi dugu, saioa ez da espezie edo subespezie literari (?) bat besterik, prosaren barruan. Patri Urkizuk, alderantziz, lau jenero haunditan banatzen du euskal literaturaren historia, horietako bat saioa izaki: poesia, teatroa, nobela eta saioa. Modu honetan bidezko da P. Urkizuk Gero saiotzat hartzea. Baina, eskema honetan, Leizarraga ere saiolarari bihurtzen saigu; Larramendiren karta bat saio bihurtzen da; Peru Abarka-ko zati elkarrizketatu bat ere saio gisa ematen zaigu...

Zer da, beraz, saioa? Azkenean galdera hori jotzen dugu berriro. L. Mitxelenaren *Idazlan Hautatuak* argitara eman eta, sailka sailka, Patxi Altunak hitzaurretxoz hornitu zituenean, liburuako sail bati saioena baitzeritzan, Patxi Altuna ez zegoen guztiz lasai: "badakit izen hori ez datorkiela bostei oso egoki"... Problema, halare, beste zerbaitek dirudi, liburuak irakurriaz: zeri ez ote dagokion liburu guztian saio izena; edo, behintzat, bostoi ezik, beste zenbait gehiagori eman beharko litzaiokeen, ondo eta oso ondo, saio izena, bilduma horretan...

Saioa gora, saioa behera: saioak edo saioantzak euskal literaturan zein leku duen, izan duen, ezin argituko dugu, lehenengo kontzeptuetan argitasun minimo bat egin arte.

Joxe AZURMENDI

